BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2838

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 20koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena. Honen bidez, Webasto Thermo & Confort Ibérica, S.L.U. enpresa «gas fluorduna erabiltzen duten ibilgailuen klimatizazio ekipoen manipulazioaren» arloan profesional baimendunak prestatzeko erakunde aintzatetsitzat onartzen da.

Espediente-zk./Gaia: SEG/0035/2013.

AURREKARIAK

Bat.– 2013ko martxoaren 13an, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko Ordezkaritzak Webasto Thermo & Confort Ibérica, S.L.U. enpresako ordezkarien eskabidea jaso zuen, «gas fluorduna erabiltzen duten ibilgailuen klimatizazio ekipoen manipulazioaren» arloan profesional baimendunak prestatzeko erakunde aintzatetsitzat aitor zezaten.

Bi.– Eskabide horretan adierazi zuten Diavia Aire, S.A. enpresa irentsi dutela eta enpresa horrek prestakuntzarako erakunde aintzatetsitzat aitortua izateko bete behar izan zituen betebehar guztiak –irakasleei, prestakuntza-planei eta lokalei dagozkienak– betetzen dituztela. Eskabidearekin batera, zenbait agiri bidali zituzten, eskatzailearen eta Diavia Aire, S.A. enpresaren arteko irenspen bidezko bat-egitea egiaztatzeko, bai eta helbide soziala Diavia Aire, S.A. enpresarenera aldatu dutela egiaztatzeko ere, hau da: Mar Tirreno kalea 33, San Fernando de Henares (28830), Madril.

Hiru.– Industria Administrazio eta Segurtasunerako zuzendariak 2011ko azaroaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez onartu zuen Diavia Aire, S.A. enpresa «gas fluorduna erabiltzen duten ibilgailuen klimatizazio ekipoen manipulazioaren» arloan profesional baimendunak prestatzeko erakunde aintzatetsitzat. Enpresa hori inskribatuta zegoen Profesional Baimendunak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsien Erregistroan. Erregistro-zenbakia: REFPA A-0098.

Lau.– Aurkeztutako agiriak kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak aldeko txostena bidali zuen 2013ko apirilaren 15ean, Webasto Thermo & Confort Ibérica, S.L.U. enpresaren eskabidea onartu eta enpresa hori eskabidean adierazitako arloan erakunde aintzatetsitzat baimendu zedin.

Hona hemen espediente hau ebazteko aipatu eta kontuan hartu beharreko

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak du ebazpen hau emateko eskumena, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bi.– Ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak arautzen du gas fluordunen eta horietan oinarritutako ekipoen merkaturatzea eta manipulazioa, bai eta horiek erabiltzen dituzten profesionalen akreditazioa ere, eta beronen 8.2 artikuluak bide ematen die administrazio eskudunek baimendutako zentroei prestakuntza-programa jakin batzuk irakasteko eta ebaluatzeko; zehazki, dekretuan jasotako espezialitateren baten akreditazioa lortzeko beharrezkoak diren prestakuntza-programak.

Hiru.– Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak, industria-segurtasunaren arloan norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituenak, ezarritakoaren arabera izapidetu zen Diavia Aire, S.A. enpresari baimena emateko espedientea. Espediente horren bidez egiaztatu zen, besteak beste, bazituela 22. artikuluan eskatzen diren instalazioak eta ikastaroen edukiek eta enpresaren giza baliabideek nahiz baliabide teknikoek dekretu horretako 25. artikuluan eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen zituztela.

Lau.– Irenspen bidezko bat-egitearen ondorio nabarietako bat da, oro har, enpresa irentsiak enpresa irenslearen sozietate-izena hartzea; izan ere, enpresa irentsia deuseztatu egiten da, enpresa irensleak irentsita. Enpresa irensleak enpresa irentsiaren eskubide eta betebehar guztiak subrogatzen ditu.

Bost.– Profesional baimendunak prestatzeko erakunde onetsi izateko baimenak 63/2006 Dekretuak arautzen ditu (63/2006 Dekretua, martxoaren 14koa, industria-segurtasunaren arloan norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituena), eta, baimen horiek zertarako eskatzen diren eta betebehar objektibo batzuk betetzearen arabera ematen dira. Halaber, baimenak ez dira, ez, eskatzailearen arabera ematen. Hortaz, erakunde onetsiaren izena aldatzeak ez du eraginik baimenen indarraldian eta baliozkotasunean. Edonola ere, segurtasun juridikoaren printzipioak izen-aldaketa Profesional Baimendunak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsien Erregistroan sartzea eskatzen du.

Aipatutako legezko testuak eta oro har aplika daitezkeen gainerakoak ikusita,

EBAZTEN DUT:

1.– Webasto Thermo & Confort Ibérica, S.L.U. enpresaren eta Diavia Aire, S.A. enpresaren arteko irenspen bidezko bat-egitea kontuan hartzea, eta horren arabera «Ebazpena, 2011ko azaroaren 15ekoa, Industria Administrazio eta Segurtasunerako zuzendariarena, Diavia Aire, S.A. entitatea »fluordun gasa erabiltzen duten ibilgailuen klimatizazio ekipoen manipulazioa« espezialitatean profesional baimendunak prestatzeko entitate gisa aitortzeko dena» aldatzea, zehazki, ebazpen horretan Diavia Aire, S.A. aipatzen den guztietan, horren ordez Webasto Thermo & Confort Iberica, S.L.U. jartzeko, ez beste ezertarako.

2.– Webasto Thermo & Confort Ibérica, S.L.U. Profesional Baimendunak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsien Erregistroan inskriba dadila agintzea. Erregistro-zenbakia: REFPA A-0098.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

4.– Entitate horrek baimena du dagozkion ikastaroak irakasteko Diavia Aire, S.A. sozietateak egiaztatutako instalazioetan. Ikastaroak beste instalazio batzuetan irakasteko, baimena eskatu beharko dio Lurralde Ordezkaritza eskudunari, nahitaez eskatu ere, eta egiaztatu beharko du martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuko 22. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

5.– Erakunde aintzatetsi orok bete beharko ditu aplikatzekoak diren lege- eta arau-xedapenetan ezarritako betebeharrak, eta, bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuko V. kapituluan ezarritako betebeharrak.

6.– 63/2006 Dekretuan eta dekretu hori garatuko duten arauetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, erakunde aintzatetsi izateari utziko dio.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industriako sailburuordeari, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean; hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Adminis-

trazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 107. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 20a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.